

# ANA ESTHER FURUNDARENA OLABARRIAGA

**B**izikidetza sendotzea du helburu Euzko Alderdi Jeltzaleak, eta bizikidetzak beharrezkoa du komunikazioa, eta komunikazioak, hizkuntza. Eta hizkuntzak, hiztunak. Beraz, hizkuntza bizia izango bada, hiztunak behar ditu euskarak, ahal dituzten aukera guztietan eta ahal dituzten eginkizun guztietarako euskara darabilten hiztunak, euskara bihotzetik ezpainetara eramateko urratsa egiten duten hiztunak.

Euskara da gure gizartearen osagarri funtsezkoa, haren ezaugarri nabarmenena. Eta euskal gizartearen atxikimendua ezinbestekoa izan da, hain zuzen ere, euskarak, azken hamarraldiotan, imajinatu ere ezin zitekeen aurrerakada egin zezan. Hizkuntza bizia dugu egun euskara, eta guztion esku dago gero eta biziago izatea, gero eta erabiliago izatea bizitza publiko eta pribatuaren esparru guztietan. Egiteko asko dago oraindik euskararen erabateko normalizaziora heltzeko, orekatik ahalik eta gertuen egon behar duen elebitasun egoerara iristeko.

Euzko Alderdi Jeltzalearen **gizarte-proiektuaren** muinean dago euskara. Ez da gure Herrian dagoen hizkuntza bakarra, gaztelania eta frantsesa ere Euskal Herriko hizkuntzak ditugulako, baina egia da, neurri berean, euskal hiritarrok hainbat hizkuntza baldin baditugu ere, euskarak gu bakarrik gaituela, bizitzarako eta bizikidetzarako hizkuntza izateko. Eta bera da nahitaez indartu behar dugun hizkuntza, baldin eta gure hizkuntza-aniztasunari osasuntsu eutsi

## EUSKARA GURE GIZARTEAREN BIZIGARRI

nahi badiogu. Beraz, euskara ohiko hizkuntza izango duen gizartea lortzeko lanean dihardugu Euzko Alderdi Jeltzaleatik.

Eleaniztasuna bultzatu nahi dugu, gure Herriaren ezaugarrietako bat delako eta aberasgarri zaigulako, baina ahalik eta eleaniztasunik orekatuena da gogoko duguna, eta horretara hurbiltzeko ezinbestekoa da euskara indartzeko neurri eraginkorrak hartzea eta politika aktiboak bultzatzea, euskararen ezagutza eta, oso bereziki, erabilera apurka-apurka baina etengabe areagotzen jarraitzeko. Hizkuntza-bizikidetza orekatzeko eta euskararen erabilera pixkanaka baina etengabe areagotzeko, asmatu behar dugu gizartearen beharrian berrien begietara euskarak dituen erronkei eraginkortasunez erantzuten, berritzaile izaten, euskararen eta erdaren arteko bizikidetza orekatuagoa eta berdinkideagoa izan

dadin urratsak egiten. Eta argi izan, gure gizartearen errealitatea kontuan harturik, okerrekoak direla euskararen ustezko inposizioa salatu nahi duten diskurtsoak, sustatzaile izan ordez balazta baitira euskararen aurrerabidean, eta, beraz, oztopo gertatzen dira euskal gizartearen bizikidetza sendotzeko ahalegin partekatuan.

Euskarak aurrera egiteko ezinbestekoak izan ditu, eta izango ditu aurrerantzean ere, adostasun sozial eta politikoa, lege-babesa, hizkuntza-politika eraginkorra eta hiritarren atxikimendua. Hain zuzen ere, euskarak azken 30 urteotan Euskal Autonomia Erkidegoan aurrera nabarmen egin badu, hiru faktore horiek elkarrekin modu egokian uztartu direlako izan da. Aldiz, hiru faktore horien arteko uztardura ahula eta gorabeheratsua izateak azaltzen du euskararen hazkundea Nafarroan Euskal Autonomia Erkidegoan baino motelagoa izatea, baita iparraldeko datu kezkarriak ere.

Euskararen aldeko diskurtso berritua era egokian proiektatzea ezinbestekoa dela deritzogu. Eginkizun nazional modura planteatu behar da adostasun politikoa eraikitzea, eta, harekin batera, gizartearen adostasuna eratzea. Eta jakin badakigu euskal gizartean badela euskarari buruzko diskurtso partekatu baterako oinarri edo zoru komunik, eta badakigu, era berean, diskurtso eraberritu eta partekatu hori, batez ere, elkarrekiko errespetuaren balioen gainean eta hurkoaren hizkuntza-eskubideen onarpen praktikoaren gainean eraiki beharko dela, gizarte bizikidetzaren aldeko diskurtsoarekin erabateko sintonian.

Nabarmenezkoa da, adostasunaz dihardugularik, luzea eta emankorra dela Euzko Alderdi Jeltzaleak eratutako gobernuek alor horretan egin duten bidea. Eta bide horretan, 1982ko Euskararen Legea abiapuntu, azken urteotan erabakigarria gertatu den ekimena aipatu beharra dago: Euskara 21 gogoeta prozesua, XXI. mende hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak finkatu zituen, *Itun berritu baterantz* izenburuko dokumentuaren bidez. Adostasun zabala eta eraginkorra izan zen Euskara 21 prozesuak bildu zuena, eta adostasun horri esker, besteak beste, ireki zitzaion bidea Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), 1998tik ondorengo indarraldi oparoaren ondoren, euskal gizartearen eta euskararen biziberritzearen errealitate eta premia berrietara egokitzeko lanari, 2012an Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) eman zuena. Adostasunaren ildotik etorri da, era berean, ESEPen

diagnostikoan sakontzeko lana, Euskararen Aholku Batzordeak 2015ean onartutakoa.

Horrek argi erakusten du Euzko Alderdi Jeltzaleak ez duela euskara sekula erabili borroka politikorako; ostera, hizkuntza bera eta euskal hiritarren interesak izan ditu beti aurrean, alderdi bezala zegozkiokeen interesak maila apalagoan jarri.

Ildo berean, Euzko Alderdi Jeltzaleak ezinbestekotzat jotzen duen adostasun politiko eta soziala lortzeko eginkizun jarraitu horretan aurrera eginez, Euzko Jaurlaritzak beste bi mugarri jarri ditu azken urte hauetan: 1) oinarriak ezartzea euskararen gaineko diskurtso partekaturako zoru komunerako, euskal gizartearen euskarari buruzko iritzi eta usteen edukia eta hedapena ezagutu ondoren, eta, 2) etorkizunerako proposamena, datozen 15-20 urteetako perspektiban finkatu beharreko lehentasun markoa zehazteko, jakinik euskal gizartearen ezaugarriak, baita hizkuntza-ezaugarriak ere, aldatuz doazela.

Etengabeko gogoeta horretan zuzenezuzenean inplikaturik dago Euzko Alderdi Jeltzalea, euskara sustatzea ardatz nagusi duen hizkuntza-politika eraginkor bat eraikitzen jarraitzeko, gizarte osoarekin bat eginda.

## **EUSKARAK AURRERA EGITEKO EZINBESTEKOAK IZAN DITU, ETA IZANGO DITU AURRERANTZEAN ERE, ADOSTASUN SOZIAL ETA POLITIKOA, LEGE-BABESA, HIZKUNTZA-POLITIKA ERAGINKORRA ETA HIRITARREN ATXIKIMENDUA**

Ikuspegi horretatik abiatuta, euskararen sustapenaren eta hizkuntza-bizikidetzaren eremuan, datozen urteotan aurrera egiteko zenbait jardun- lerro finkatu behar ditugu.

Lehenengoz, euskarak gero eta hitzun gehiago izan behar ditu, eta horretarako hitzun horiek gero eta toki gehiagotan, gero eta eginkizun gehiagotarako erabili ahal izango dute euskara. Biak, euskararen ezagutza eta erabilera, sendotu beharko dira, transmisio-mota guztiei arreta berezia eskainiz. Alor honetan,

etxeko nahiz kaleko euskararen erabilera informalarik eskaini beharko zaio ahalegin sendoa, oso bereziki gazteen eremuan.

Bigarrenez, euskara gero eta hiritar gehiagoren lehen hizkuntza izan behar da, euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko helburuz.

Hirugarrenaz, euskararen erabilera hedatzerakoan elebidun pasiboek duten zereginaren garrantzia aintzat hartu eta jakinarazi behar da, gutxienez maila horretaraino iristeko ahalegina erraztu eta sustatuz.

Laugarrenaz, jarduera sozioekonomikoe-tan euskara gero eta hizkuntza ohikoagoa izan behar da, arreta berezia eskainiz kontsumo eta zerbitzuekin loturikoetan. Eta era berean, euskaraz lan egitearen helburua lortzeko egokieran dauden enpresek horretarako urratsak egingo dituzte.

Bosgarrenaz, hiritar guztien hizkuntza-hautua bermatzeko bidean etengabe aurrera egin behar da, zeinahi delarik ere hautu hori. Horrekin batera, eta ildo berean, hiritar guztien hizkuntza-eskubide guztiekiko errespetua bermatzeko urrats sendoak egin behar dira.

Seigarrenaz, euskara integrazioarako hizkuntza ere izan dadin, kanpotik etorritako euskal hiritar berrien eskura jarri behar da euskara, eta hizkuntza-aniztasunarekin batera kultura-aniztasunari ere gure eguneroko gizarte-bizitzan lekua behar diogu.

Zazpigarrenaz, informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren eremuan euskararen erabilera areagotu behar da, euskarazko edukia eta baliabide teknologikoak ugaltzen lagunduz, gazteek gehien erabiltzen dituztenei arreta berezia eskainiz, bai sorkuntzaren ikuspegitik, baita, hala behar denean, lokalizazioaren ikuspegitik ere.

Zortzigarrenez, euskarazko kultura-kontsumoa areagotu behar da, eta kalitatezko sorkuntza erakargarria sustatu, gazteen kontsumo ohituren ezaugarri bereziki erreparratuz eta eskaintzaren ugaritasuna eta bizitasuna zainduz eta euskara eta mundua bizitzeko modu ezberdinei ate-leihoak irekiz.

Bederatzigarrenez, mundu zabalak ere euskararen berri izan behar du, eta gure hizkuntzak sarbidea izan bai unibertsitateetan, baita nazioarteko kultura- eta aisialdi-zirkuituetan ere.

Hamargarrenez, demokrazia linguistikoak hizkuntza-berdinkidetasuna eskatzen duenez,

gure hizkuntzen -hau da, haien hiztunen arteko-bizikidetzaren harmoniatsua sendotzeko ezinbestekoak diren mezu positiboak gizarteratzeko ahalegina egin behar da, euskararen erabilera areagotzea baita helburu, elebitasun gero eta orekatuagora hurbiltzeko ezinbesteko dinamika etengabe indartuz.

Hamaikagarrenez, hiztunaren atxikimendua ez ezik, haren leialtasuna landu, elikatu eta garatu behar da euskara hizkuntza bizia izan dadin. Batez ere, euskal hiztunon eskuetan dago euskararen geroa. Eginkizun horretan, gutariko bakoitzak du, dagokion neurrian eta moduan, giltzarriaren osagarri bat: elebakarrak, euskararantz hurbilduz; elebidunak, ahalik eta gehien erabiltzen eta hutsik egin gabe transmititzen. Aginte publikoek, ostera, euskara sustatzeko eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko politika eraginkorrak diseinatu, gauzatu eta era jarraituan ebaluatu behar dituzte, adostasun sozial eta politikoa etengabe bilatuz eta elikatuz, euskal gizartearen kohesioaren ikuspegitik sekula urrundu gabe.

Eta, hamabigarrenez, euskararen lurraldeetako herri-aginteen arteko lankidetzaren indartu behar da, euskara sustatzea helburu duten ekimen eta egitasmoak sendotuz.

Euzko Alderdi Jeltzalea eragile aktiboa da euskararen sustapenean, baina ez bakarrik herri-aginteen barruko ekimenean. Bestela ere, eguneroko bizitza sozialean eta alderdiaren barrukoan, euskaltzaletasun praktikoa eta proaktiboa erakusten dugu, beti, jeltzaleok, euskara ahalik eta gehienetan erabiliz eta euskara erabiltzeko aukerak erraztuz eta zabalduz. Gurean, euskara eroso eta naturala da, erraz darabilgu gure ezpain-belarrietan. Berebiziko garrantzia du guretzat euskara bizia, erabilia izatea eta arreta bereziz zaintzen eta bultzatzen dugu eredu-garritasun hori, bereziki, alderdiaren izenean bizitza publikoan dihardugunon aldetik.

Laburbilduz, euskarak, jakintza eta erabileraz gain, prestigioa ere behar du euskaldunen artean. Lizardi olerkari bikainak esan zuen legez, *zernahitarako* eta *norannahiko* behar dugu, *soin zaharra* duen baina *berri gogoa* duena; helburu horretan, *jakite-hegoek igoa* izan behar du euskarak, prestigioa hartzeko. Eta hori guztia denon eginkizuna da Euzko Alderdi Jeltzalearen iritzian.